

asteBURUKO PROPOSAMENAK >



Joaldunak Ituren eta Zubietako bidea egingo dute astelehen eta asteartean. LANDER F. ARROIAE / ARGIAZKI PRESS



Kuxkuxtu taldea. BOB EDME

Musika, kirola eta lasterketak izango dira herriko festan

Gautegiz-Arteaga · Bihar hasiko da Polikarpo Deunaren jaia, eta igandean bukatuko

MIKEL CARRAMIÑANA

Euskal Herriko udalerrri gehienetan, udako hila beteetan ospatu ohi dira jaiak, besteak beste, gaueko erromerietan hotzari aurre egin behar izan gabe dantzatu eta, batez ere, ekitaldiak hondatu ahal dituen euria saihesteko. Hala eta guztiz ere, bere zaindariari leiala izaten jarraitzen duten eta, neguan bada ere, herriko jaiak asteotan ospatzen dituztenak badira, Gautegiz-Arteagan (Bizkaia) kasu. Bihartik igandera egingo dituzte Polikarpo Deunaren festak Busturialdeko herrian eta asteburu osoan izango da zer egin. Horretarako, noski, askotariko ikuskizun eta ekitaldiak prestatu ditu Udaleko Kultura batzordeak.

Biharko afari herrikoia ere abiatuko dira jaiak. 21:00 izango da eta, parte hartu nahi duten guztiek, aurretik, Egala taberna izena eman beharko dute. Afaloste, dantzaldia egingo dute.

ABIADURA. Larunbatean, goizeko bederatzieta, motor eta quad zaleek ederki pasako dute herrian prestatu duten lasterketarekin. Ondoren, eguerdian, meza nagusia egingo dute Andra Mari elizan. Arratsaldean esku-pilota partidak izango dira eta gauez, trikitalariak ariko dira tabernaz taberna. Igandean agurtuko dituzte jaiak, baina, aurretik, Euskal Kantu zaharren jaia egingo dute, Lapurdiko Kuxkuxtu taldearekin. Bazkalostean Basatoste egingo dute herriko plazan. Bertan, nahi duten guztiek taloa egin ahal izango dute antolatzaileek emandako orearekin.

Zer: Polikarpo Deunaren jaia.

Noiz: Bihartik igandera.

Non: Gautegiz-Arteagan (Bizkaia).

Inauterien lehendabiziko txanpa

Ituren eta Zubietako joaldunak edota Ilarduiak lastozko gizonak emango diete hasiera inauteriei

ANAKOZ AMENABAR

Euskal Herriko txoko askotan prest dira asteburu honetan inauteriak ospatzeko, nahiz eta ofizialki datorren astean hasiko diren. Hitzordu ugari izango dira gaurtik hasita. Lehendabiziko txanpan mozorroak ganbaratik jaitziko dituzte, besteak beste, Nafarroan Ituren, Zubietako, Aurtitz, eta Sunbilla; Lapurdin Uztaritzen; eta Araban Egino, eta Ilarduian.

Joaldunak izango dira goiztiarrenak. Gaur bertan egingo dute puxka biltzea eta afaria Nafarroako Aurtitz, Ituren eta Zubietan. Larunbatean ere afaria eta dantzaldia izango dute. Jantziak paratuta, lehenengo ibilaldia egingo dute joaldunak kalez kale, baina astelehen eta asteartean egingo dituzte ibilaldi nagusiak.

Astelehenean Zubietako joaldunek aurtiztarrei bisita egingo diete. Herriari bira eman eta salda hartu ostean, Iturenera joango dira. Bertan, joaldunak hamaiketako egin bitartean herriko plazan karroza bakoitzak bere ikuskizuna eskainiko du. Eguerdian, 15:30ak aldera, bakoitza bere herrira itzuli eta bazkaria izango dute elkartetan. Ohi-

turari jarraituta, natura ernatu eta uzta berri eta ugariak emateko egingo den ibilaldia asteartean errepikatuko dute joaldunak Iturendik Zubietara. Inauteriekin amaitzeko, hurrengo asteburuan ospatuko dute Kontuen eguna.

INAUTERIAK ARABAN. Arabako Ilardua, Okina eta Andoinen ere bertako inauteri tradizionala berreskuratzeko asmoz jaia egingo dute larunbatean. Orain dela laurogei bat urte desagertu ziren Asparrena inguru horretan inauteriak, eta ordu-

ko jantzi eta antzezpenak nolakoak izan ziren ikertu ostean, iaz egin zuten lehendabiziko saiakera arrakasta handiarekin. Hiru herrietako lagunek batera ospatzen dute jaia.

Udaberriaren ongi-etorria irudikatzen joaia izaten da bertakoa, eta hainbat pertsonaiek parte hartzen dute festa handian. Besteak beste, lastozko gizona, ezkongaiak edo apaiza gerturatuko dira. Etxerik etxe erronda egin ostean, eta inguru ezberdinak bisitatuta, musika eta dantza lagun, jaia Andoinen amaituko da sutearekin. Sabela

betetzeko, txokolatea eta torrijak izango dira guztientzat amaieran. Antolatzaileek eskatu moduan, bisitariek baserritarrez jantzita joan beharko dute jaiaz gozatzen.

Uztaritzen bihar ekingo diote inauteriari Hartzaro aurre-festibalekin. 14:00etatik aurrera, Heraitzeko guraso eta haurrek, eskolako haurrekin batera mozorroturik joango dira herriko parkera, San Pantzarren epaiketa gertutik jarraitzen. Larunbatean, mozorroekin batera, musika izango da nagusi herriko bazterretan. Santa Katarina kaperara, esaterako, Hego Amerikako soinuak ekarriko ditu Mochicas taldeak Jean Garinzen zuzendaritzapean. Eta kontzertuaren ondotik, txokolate beroa ez da faltako. Igandean pilota plazan hasiko da jaia goizetik. 11:00etan Kaskaroten ongi etorriaren ondoren, hamaiketako eta Mutxikoak arituko dira Erdizka taldearen laguntzarekin.

KALDEREROAK DONOSTIAN. Normalean otsailaren hasieran ospatzen dira kaldereroak, baina aurtin inauteriak oso goiz direnez, kaldereroak asteburu honetan egingo dituzte konpartsa askok Donostian. Hainbat konpartsa aterako dira asteburuan, gehienak larunbatean.

Zer: Inauteriak, kaldereroak; iñude eta artzainak.

Noiz: Asteburu osoan.

Iñude eta Artzainak igandean

Inauterien aurreko asteburuan aterako dira iñude eta artzainen konpartsak, Iruenen, Hernanin (Gipuzkoa) eta Donostian, besteak beste. Beran (Nafarroa), bestalde, otsailaren 3an egingo dute ekitaldia. Donostian, Parte Zaharrean eta Grosen ibiliko dira, Parte Zaharreko konpartsa Kresala taldeak antolatzen du. Euskal Herria kaletik abiatuko dira eta ondoren Parte Zaharreko kaleak zeharkatuko dituzte. 150 lagunek osatuko dute konpartsa, 1977an errekupeperatu zuten. Grosen 11:30ean aterako dira Txofre kaletik.

Iruenen, Erailki taldeak antolatu du ekitaldia. 12:00etan abiatuko da Pio XII plazatik iñude, artzain, apaiza, monagilo, barkilero, alkate eta abarrek osatutako konpartsa. Eguraldiak laguntzen badu,

Iraultza Dantza Taldekoak izango dituzte ondoan, XIX. eta XX. mendeko jantzi dotoreak soinean. Ordu bata aldera San Juan plazara iritsiko dira, eta han, Irungo Musika Fundazioko Bandak lagunduta Sarriegiren doinuez baliatuta, *Iñudeen Sarrera* eta beste zenbait dantza eskainiko dituzte.

Hernanin, urtero bezala, Urumea ikastolako antolatutako Iñude eta Artzainen konpartsa aterako da. 12:00etan hasiko da. Ekitaldi nagusia Gudarien Plazan egingo dute: iñudeek eramango dituzten haurrei txertoa jarri eta Udala agintariari aurkeztuko dizkiete, haien izenak erregistroan idatzirik geratzeko. Konpartsan, 183 ikasle parte hartuko dute. Urumea ikastolako konpartsa antolatzen duen 15. aldia da.